



ZARAUZKO *U*DALA

**XXIX BASARRI  
BERTSOPAPER SARIA**



## XXIX. BASARRI BERTSOPAPER SARIA

Zarauzko Udalak euskara suspertu eta bertsogintzari lagundu nahian, XXIX. Basarri Bertsopaper saria antolatu du.

### 1.- DIRU SARIA

Lehenengo saria: 1.100 euro eta txapela  
Bigarren saria: 750 euro eta oroigarria

Sariak zatiezinak izango dira eta lanek behar adinako mailarik ez badute, sariak eman gabe gera daitezke.

Sarien diru kopuruek indarrean dagoen legedian ezarritako atxikipena izango dute.

### 2.- LANEN EZAUGARRIAK

- ✦ Bertsopaper bakoitzak, gutxienez, zortzi bertso izan behar ditu.
- ✦ Parte-hartzaileek nahi adina bertsopaper bidal ditzakete.
- ✦ Lanek originalak, argitaragabeak eta beste inolako lehiaketetan saritu gabeak beharko dute izan.
- ✦ Gaia: **“INAZIO EIZMENDI, BASARRI”** izango da

### 3.- LANAK AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko epea uztailaren 19an amaituko da.

### 4.- LANAK BIDALTZEKO HELBIDEA

Zarauzko Udala  
Kultura saila – Sanz Enea Kultur Etxea  
Nafarroa kalea 22  
20800 Zarautz

943 00 51 19 telefonoa edo [kultura@zarautz.org](mailto:kultura@zarautz.org)

### 5.- LANAK NOLA AURKEZTU

- ✦ Makinaz idatzita, bertsotik bertsora bi lerro zuri utziz.
- ✦ Lan bakoitzaren originala eta kopia bat bidali behar dira.
- ✦ Lanak orriaren alde batean bakarrik idatzita bidali behar dira.
- ✦ Ez dira posta elektronikoz jasotako lanak onartuko.
- ✦ Izengoitiz sinatuko dira.
- ✦ Aparteko gutun-azal itxi batean datu hauek jarriko dira: egilearen izena, helbidea, telefonoa eta beharrezkoak diren gainontzeko xehetasunak. Gutun-azalaren kanpoaldean izengoitia idatziko da.

### 6.- EPAIMAHAIA

Epaimahaia Zarauzko Udalak izendatuko du horretarako pertsona adituak aukeratuz.

Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

### 7.- EPAIA ETA SARI BANAKETA

Epaia 2013ko irailaren lehen astean emango da jakitera, Euskal Jaien barnean izango den Bertsolari Gazteen XXXVII. txapelketaren barruan.

### 8.- LANEN JABETZA ETA SARITU GABEKO LANAK

Saritutako lanen jabetza Zarauzko Udalaren esku geldituko da, eta honek, sari-banaketa ondoren, hamar urteren barruan eman ditzake lanak argitara. Kasu horretan, egileak ezingo dio inolako ordainik eskatu Udalari.

Egileek sei hilabeteko epea izango dute saritu gabeko lanak jasotzeko, eta ondoren, Udalaren esku geratuko dira.

### 9.-LEGE BARRUTIA

Araudi honetan jasotzen ez den edozein gorabeheratan, epaimahaiak dauka erabakitzeke ahalmena.

Lehiaketa honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri eta baldintza hauek guztiak onartzea.